

NOTA DE PRENSA**SURBISAK AMAITU DITU REKALDEBERRIKO
ARTATZU BEKOAKO ETXEBIZITZEN
BERREGOKIPEN LANAK**

- Surbisak jarduketa bateratua kudeatu du 24 atari eta 240 etxebizitza biltzen dituzten zortzi bloketan. Fatxaden osoko berregokipena auzotarrek ordaindu dute eta isolamendu termikoa eta akustikoa sartu da; begiratokiak erregularizatu dira, elektrizitate, telefonia eta gas instalazioak bildu dira eta hegaldurak konpondu dira.
- Lanek 2,7 milioi euroko aurrekontua izan dute. Auzotarrei emandako fondo galdurako dirulaguntzak diruz lagundu daitekeen zenbatekoaren % 35era arte iritsi dira, Artatzu Bekoa "Berregokipenerako Eremua" aitortu ostean.
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburua eta Surbisako presidentea berregokitutako etxebizitzetara bisita egiten izan dira gaur goizean.

Bilbon, 2008ko azaroaren 28ean.

Rekaldeberriko Artatzu Bekoako eraikinen fatxaden osoko berregokipena burututa dago bi urteko lanaldia igaro ostean. Lanak faseka burutu dira eta 2,7 milioiko kostua gainditu dute. Berregokipen honetan, 24 atari eta guztira 240 etxebizitza biltzen diren zortzi bloketan era bateratuan jardun dute. Higiezinok eraikuntza multzo bat osatzen dute, beraz, fatxaden berregokipen jarduketak trataera bateratua izan behar zuen. Hori guztia Berregokipenerako Hirigintza Elkarte Surbisak zuzendu eta zainduta burutu da. Berregokipen lanak bizilagunek ordaindu dituzte eta fatxadak, estalduretako hegaldurak, eta arotzeria eta terrazak hartu dituzte xedetzat, besteak beste.

Gaur goizean, ikuskatze bisitaldia egin diote berregokipen multzo honi Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazok eta Surbisako presidente eta Bilboko Udaleko alkateorde Julia Madrazok. Haiekin, Surbisako zuzendari nagusi, Marta Ibarbia. Erakunde horiek laguntzaileak izan dira Artatzu Bekoako higiezin hauen berreskuraketan, eta dirulaguntzak eman dizkiete auzotarrei konponketa lan hauek burutzeko. Esan beharra dago egoiliarrek era aktiboan hartu dutela parte lan hauen proiektuetan; izan ere, Surbisa Berregokitze Proiektua idazten hasi zenetik, bloke bakoitzean lan talde mistoak sortu ziren: egoiliarrek eta udal elkarteko teknikariek osatu zituzten taldeak, kasuan kasuko irtenbideak egokituzko.

Diru-laguntzak

Konponketa hauetarako diru-laguntzak tramitatu eta emateaz ere arduratu da Surbisa. Fondo galdurako diru-laguntzak diruz lagundu daitekeen zenbatekoaren % 35era arte iritsi dira; izan ere, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak "Berregokipenerako Eremua" izendatua du Artatzu Bekoa, Bilboko Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Sailak eginiko eskaerari erantzunda.

Diru-laguntza horiez gain, zuzenean Surbisak emandakoak ere egon dira: eraikin bakoitzaren Berregokitze Proiektuaren idazketa kostu osoa; fondo galdurako diru-laguntza, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren % 5eko zenbatekoan; eta balkoietako arotzeria jarri edo ordezteko lanetan, fondo galdurako diru-laguntza, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren % 20ko zenbatekoan.

Zaharberritze koloretsua

Artatzu Bekoako fatxaden berregokipenean, isolamendu termikoa eta akustikoa ere sartu da; teilatu eta zorrotenak konpondu dira; begiratoki eta fatxadetako arotzeria berdindu da; eta elektrizitate, telefonia eta gas instalazioak baterabildu egin dira.

Blokeen estetikari dagokionez, ikuspenerako intentsitate kromatiko markatu batez nabarmentzen diren blokeak sortu dira. Hala, kolore beixaren gainean, ardo kolorea, kalabaza kolorea, berde iluna eta urdin iluna nabarmentzen dira indartsu. Eraikinen mehelinek, berriz, lau koloreak nahasten dituen irudi geometrikoa dute.

